

Bezeroak lortzeko, ikastolekin jarriko gara kontaktuan, hala nola, Kirikiño, Intxintxu, Sain Ignazio, Abusu, Karmelo eta Begoñazpiko ikastolekin. Uste dugu ikastolek duten ikasle perfilengatik, gure zerbitzuan interesa izan dezaketen pertsonak egon daitezkeela. Honetarako, zuzendariarekin kontaktuan jartzeaz gain, bertara hurbilduko gara hitzaldiak emateko.

Ekintza hauek burutzeko ezinbestekoa izango da materialak erostea. Honetarako ekonomia eta kalitatea begiratuz, Makro dendan materialak erostea erabaki dugu, Erandioko Makroan. Honetarako bazkide txartela erabiliko dugu. Taldeko partaide batek txartel hori daukanez, ez dugu inolako arazorik bertara sartzeko. Kartulinak, arkatzak, errotulagailuak, margoak, pintxelak etb erosiko ditugu. Hau ezinbestekoa izango da gure zerbitzua emateko, material gabe ezin dugulako gauza handirik egin, beraz, hilean behin beharrezko materiala erostera joango ginateke.

Bestetik, Decathlon-era ere joango gara, bertan, pilotak, ibilaldietarako beharrezko materiala etb. erosiko ditugu. Hau ere beharrezkoa izango dugu, baina hona ez gara hileroko joango. Enpresa martxan jartzen dugunean beharrezkoa erosiko dugu eta gauza berriak behar ditugun heinean edo materiala apurtzen doan heinean bueltatuko gara.

Jolasetarako material euskalduna lortzeko, *Elkar* enpresarekin jarriko gara kontaktuan eta bertan, mota askotako materialak erosiko ditugu: Puzzleak, ipuinak eta abar erosiko ditugu hauek euskaraz direla aprobetxatuz.

Azkenik, ibilaldi egunetarako autobus bat alokatuko dugu. Honetarako Soleto Bus enpresarekin harremanetan jarriko gara. Hau Bilbon dagoen autobusen alokairurako enpresa da: (Telefono zenbakia 944471544).

Talde batek aita autobus gidaria denez, ez dugu gidaririk alokatu behar; horrela merkeago aterako zaigu, garraioa besterik ez dugulako behar. Kidearen aitak autobusa gidatuko du eta hileroko egingo ditugun ibilaldi kopurua kontuan hartuz ordainduko dizkiogu bere zerbitzuak.

Funtzesko Elkarteak		
Enpresen izena	Funtzioa	Zer
Makro	Materiala sortzeko	Margoak, kartulinak....
Decathlon	Ibilaldietarako materiala	Pilotak, sokak...
Elkar	Jolaserako materialak	Puzzleak, ipuinak....
Soleto Bus	Ibilaldietarako	Autobusa
Ikastolak	Bezeroak lortzeko	Bilbo aldeko ikastolak